

Bideo jokoa

Mirari Martiarena
Iraola

Gauza jakina da bizitza etengabeko mugimendua dela. Amaren sabelean gaudenetik hiltzen garen arte mugitzen dira gorputzeko zelula guztiak. Mugimenduak batzuetan handiak dira, bistakoa, inguruko guztiek nabaritzen dituztenak.

Hazten garenean, gizentzen garenean, argaltzen garenean berehala esaten digute zenbat aldatu garen. Batzuek aurpegira, beste batzuek belarrira xuxurlatuz. Protagonistak ez entzuteko moduan era esaten dira txutxu-mutxuak.

Zerbait aldatzeko erabakia hartu izan dudanetan erabaki kontzientea izan da. Barruak eskatu didalako, zirkulu zoro batean sartuta nengoelako eta irtenbiderik ez zegoenean aldaketek bide berriak zabaltzen dituztela ikasi dudalako. Horrek ez du esan nahi mugimendu horiek egitea erraza denik, oztopo desberdinak azaltzen dira eta gainditzea nekeza izan daiteke.

«Argalagoa izango bazina zutaz maiteminduko nintzateke», esan zidan eza-gun batek. Ez nuen erreakzionatzen jakin. Ostikada bat sentitu nuen urdailean, mina. Baina hori entzuteak

baino gehiago mindu ninduen mina sentitu izanak. Ustez gainditutako konplexu guztiak azaleratu zitzaizkidan. Arrapaladan erori nintzen mailaz maila igotako eskaileretatik. Entzungor egitea izango litzateke errazena, baina esaldi horrek nire erraietako ahulguneak ikusarazi zizkidan. Nire burua madarikatu nuen aspaldian ikusi gabeko mamuak azaldu zitzaizkidanean.

Berriz ere aurrera egiteko ordua da, baina argi dut ez naizela lehengo leku berean hasten. Bideo jokoetan bezala, azken pantailatik ekingo diot bideari, ez da ezer hutsetik hasten. •

Enfokatu beharra

Koldo Sagasti

Hautsak harrotu ditu azken asteotan *La Manada* izeneko “banda terroristaren” aurkako epaiebazpen epelak. Gutxieneko giza eskubideekiko begirunea duen edonor suminduta sentitu da epaileek gehiegikeria hutsaltzat hartu dutelako boskote kriminalak burututako bortxaketa zitala.

Aferaren kontura iritzi asko eta askotarikoak plazaratu dira. Zenbaiti gutxi iruditu zaio bederatzi urteko zigorra. Bederatzi urte gutxi ala asko ote diren, baina, kontu eztabaidagarria da. Kontua

da arretaren fokua aldatzea. Arazoa ez da zenbateko kartzela zigorra jarri, baizik eta kartzela ote den erasoaren biktimari eta gizarteari eragindako kaltea ordaintzeko biderik egokiena.

Izan ere, espetxealdiak behin eta berriaz erakutsi du ez duela betetzen ustez aurreikusten zaion funtzioa; birgizarteratzearena, alegia. Bortxatzaile sartzen dena bortxatzaile ateratzen da sarri askotan, zigorra bederatzi ala hogeitakoa izan. Kartzela bera da, beraz, auzian jarri beharko litzatekeena, eta ez bete beharreko urte kopurua.

Beste askok eraso matxisten balizko biktimak jarri dituzte jomugan: «eta bortxatua nire alaba balitz?». Gutxiago izan dira, aldiz, erasotzailea euren semea izan balitz zer gertatuko ote zen galdetu dutenak. Arretagunea aldatu egin behar da: zigorra gogortzeaz baino, akaso sistema judiziala muineraino kutsatzen duten joera patriarkalak astindu beharraz aritu beharko genuke. Emakumei erasotuak ez izateko zer egin behar duten ohartarazi baino, agian gizonezkoak gara iraultza pertsonal bat egin behar dugunok. •